

850/2018 EBAZPENA, martxoaren 6koa, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kudeaketa esparruko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan sartzeko eta bertara igotzeko eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoan sartzeko hautapen prozedurak onesten dituena.

Bigarren Hezkuntzako Irakasle Kidegoa. Hezkuntza Orientabidea -E-

OPOSIZIO ALDIKO LEHENENGO PROBA, A ZATIA: PROBA PRAKTIKOA

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe bateko orientatzailea zara.

Izen-emate epean jakin izan duzu hurrengo ikasturtean Lehen Hezkuntzako 6. maila egitera beste ikastetxe batetik ikasle berri bat etorriko dela. Jatorrizko ikastetxeko orientatzailearekin hitz eginda, hurrengo informazioa jaso duzu:

- Ikasle honek hezkuntza bereziko premiak ditu, garun paralisi bati lotutakoak. Ikasleak bere ikasmilako gutxienezko helburuak lortu arren, curriculumean sartzeko egokitzapenak behar ditu.
- Gurpil-aulkian ibiltzen da eta zaintzailearen baliabidea izaten du, bere zailtasun motorikoei aurre egiteko eta autonomia programa garatzen laguntzeko.
- Aho komunikazio funtzionala dauka.
- Fisioterapeuta baten atentzioa jasotzen du.

Zure ikastetxeko zenbait ezaugarri honako hauek dira:

- Maila bakoitzeko bi ikastalde daude.
- Pedagogia Terapeutikan aditua den irakaslea badago eta Entzumen eta Hizkuntzan espezialista ibiltaria ere asteko hainbat egunetan.

Ikasle honen atentzioa antolatu behar duzu hurrengo ikasturte osoari begira: ikasturte hasieratik etapa bukaera arte. Beraz, ikaslearen eta testuinguruaren ezaugarriak kontuan harturik, zehaztu itzazu egingo zenituzkeen esku-hartzeak.